

Landeia

Aldizkari Sindikala - Revista Sindical
Azaroa 2022 Noviembre | Nº 247 Zenb.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

GEHIEN BEHAR DUZUNEAN...

A LA HORA DE LA VERDAD...

**Aktibatu
Lortu
Zaindu**



HAUTESKUNDE
SINDIKALAK
ELECCIONES SINDICALES

www.ela.eus

Zure lan
baldintzak
defendatzeko.

Tu voto de hoy,
tus condiciones
de mañana.

ELA

EUSKAL SINDIKATUA





Joseba Villarreal, Mitxel Lakuntza y Amaia Muñoa en la presentación de la campaña de elecciones sindicales.

Objetivo

Renovar y ampliar nuestra representación sindical

> Landeia

ELA se presenta en el periodo concentrado de elecciones sindicales que se desarrollará en los próximos nueve meses como el sindicato que “da una oportunidad a los trabajadores y trabajadoras que quieren mejorar condiciones de trabajo y quieren pelear”, según palabras de Mitxel Lakuntza, secretario general del sindicato

“Gehien behar duzunean...

ELA” es el lema elegido por el sindicato para la nueva campaña de elecciones sindicales que la organización afronta con los objetivos de renovar y ampliar su representación sindical en la CAPV y Navarra.

Entre los meses de octubre y junio se ponen en juego un total de 11.591 delegados y delegadas sindicales, casi la mitad (47%) de la representación sindical en ambas comunidades. De esa cantidad, 8.630 representantes sindicales corresponden a la Comunidad Autónoma Vasca y el resto a la Comunidad foral.

Hauteskunde sindikalen emaitzak garrantzi handia du enpresa edo sektore baten etorkizunean, baita herrialdearentzat ere.

En la actualidad, ELA es el primer sindicato en la CAPV, con un 40,6% de la representación, doblando en porcentaje al segundo, LAB, que cuenta con un 19,7%, mientras que CCOO tiene el 18,6% y UGT, el 10,7%, según datos de junio.

En Navarra, ELA parte de un 23%, LAB del 17%, mientras que CCOO lo hace de un 24% y UGT de un 24,3%.


ELA afronta esta nueva cita electoral con optimismo, porque está convencida de que el trabajo realizado dará sus frutos. Por ello, anima al conjunto de su militancia a volcarse en este nuevo proceso electoral porque "el voto de hoy puede marcar las condiciones laborales de mañana". ■

Hauteskunde sindikalak

Elecciones sindicales


EAE 2006ko abendua > 2010ko abendua > 2014ko abendua > 2018ko abendua > 2022ko ekaina
CAPV Diciembre 2006 > Diciembre 2010 > Diciembre 2014 > Diciembre 2018 > Junio 2022

Delegatu kopurua eta % N° delegados/as y %



Nafarroako ordezkariak sindikala

Representación sindical en Navarra



“A 87 delegados de ser el primer sindicato también en Navarra”



Imanol Pascual

ELA 1.500 ordezkari izatera iritsi da lehen aldiz, abuztuko datuen arabera. Bestalde, lehen sindikatua da Nafarroako iparraldean eta Iruñerriko industria sektorean.

esa cifra es una pequeña revancha frente a aquellos que durante años han querido invisibilizar y marginar a una organización abertzale y combativa como ELA”, explica con orgullo Pascual.

Y estar en la pugna por ser el primer sindicato en Navarra tiene un mérito inmenso, también, por haberlo logrado tras muchos años de pelear en desigualdad de condiciones con UGT y CCOO, dos sindicatos sobrefinanciados por el mal llamado diálogo social y promocionados por las propias empresas en numerosos procesos de elecciones sindicales.

Honesta trayectoria

Orgullosa y feliz por lo conseguido, Pascual quiere poner en valor la trayectoria del sindicato. “En los próximos meses podemos bajar de los 1.500 delegados y delegadas, porque de aquí a final de año ponemos en juego un porcentaje muy superior a nuestra representación, pero lo importante es nuestra trayectoria, la honestidad y la cercanía que ELA ha demostrado durante décadas, y que no ha dejado de dar frutos”. Los datos así lo avalan:

desde el año 2010, ELA ha recortado a UGT 536 representantes (ahora estamos a 87), y a CCOO, 218 delegados y delegadas (estamos a 55).

La pelea por ser el primer sindicato de la Comunidad Foral está, por tanto, más viva que nunca, y el coordinador de Navarra espera que sirva como elemento de motivación para toda la militancia y afiliación de cara al periodo concentrado que acabamos de empezar.

“Estos datos son consecuencia de un trabajo colectivo y militante enorme”, afirma Pascual. “Son fruto -añade- del trabajo de todos y todas nuestros liberados y liberadas sindicales actuales, también de la gente que nos precedió pero, sobre todo, de nuestros delegados y delegadas en las empresas, que es la gente que en el día a día es la cara y da la cara por el sindicato”, afirma con rotundidad.

Finalmente, el coordinador de ELA en Navarra insiste en el hecho de que el objetivo último del sindicato es utilizar su mayoría para mejorar las condiciones laborales y de vida de la gente, de la clase trabajadora, y que para ello resulta imprescindible activar la negociación colectiva en los centros de trabajo. “Cada vez más trabajadoras y trabajadores saben que si quieren mejorar sus condiciones tienen que contar con ELA. Las referencias de logros sindicales están prácticamente siempre asociadas a nuestro sindicato. Frente al clientelismo, renuncias y enchufismo que sigue representado el modelo de UGT y CCOO, ELA es buena muestra de que otro sindicalismo es posible e imprescindible; un sindicalismo por y para la gente”. ■

Imanol Pascual, coordinador de ELA en Navarra, afronta este periodo de elecciones sindicales cargado de optimismo e ilusión. Optimismo porque, por primera vez en Navarra, ELA ha superado en el cierre de elecciones de agosto los 1.500 delegados y delegadas. E ilusión porque ELA está a tan solo 87 delegados y delegadas de convertirse en el primer sindicato de Navarra, algo impensable hace tan solo unos pocos años.

La cifra de los 1.500 delegados tiene relevancia porque en base a la Ley Orgánica de la Libertad Sindical supone tener la condición de sindicato más representativo en Navarra. Pero más allá de la trascendencia jurídica, los 1.500 delegados y delegadas tienen un significado especial porque durante los tiempos del Corralito Foral los gobiernos de UPN y PSN se escudaban en que ELA no tenía la condición de sindicato más representativo para excluir al sindicato de diferentes órganos. “Por eso, haber llegado a



Igor Eizagirre



Mari Cruz Elkoro



Unai Martínez

Igor Eizagirre (Gizalan), Mari Cruz Elkoro (Zerbitzuak) eta Unai Martínez (Industria eta Eraikuntza) ziur daude langile-klaseak babes masiboa emango diola berriro ELAren eredu sindikalari hautestontzietan

Ordezkarri gehiago enpresetara gehiago eta hobeto iristeko

GIZALAN

Igor Eizagirre Gizalaneko idazkari nagusiak baikor begiratzeko bere federazioko hauteskunde sindikalen prozesu berriari; izan ere, langile publikoek sindikatuko militanteek egindako lan eskerga ikusi ahal izan dute urte hauetan, zaintza esparruan aurrera eramandako hainbat borroka, murrizketei aurre eginez, lan-prekaritatearen aurka borrokatuz, sendotzearen alde borrokatuz, proposamenak eginez... eta, beraz, ziur dago horrek guztiak fruituak emango dituela. Hala eta guztiz ere, lan zentro bakoitzean boto bakoitza, ordezkari bakoitza... lehiatzera animatu ditu militante guztiak.

Helburuei dagokienez, Eizagirrek gogorarazi du ELAk sektore publikoan ia %44ko ordezkarietza duela EAEn, eta ia %20koa Nafarroan. EAEn ordezkarietza berrestea eta Nafarroan bigarren postua kontsolidatzea eta lehenengora hurbiltzea da helburua. "Nafarroan jada ELA lehen sindikatua da udal-tan eta gizarte-ongizate sektoreetan. Nafarroako Gobernuak bozketetan emaitzak hobetzea da beste helburutariko bat", azaldu duenez.

"EAEn dagokionez, erronka handia daukagu udal eta gizarte-ongizate sektoreetan gaur egun dugun % 50ko ordezkarietza berresteko. EAEn hiru hiriburuetan eta foru aldundietan emaitzak hobetu nahi ditugu ere. Hezkuntzan ere lehen sindikatua izatea jarraitu nahi dugu", esan du Gizalaneko idazkari nagusiak.

Eizagirrek azpimarratu duenez, garrantzitsua da ELAk sektore publikoan duen ordezkarietza indartzea, gure Administrazioen politika neoliberaleri eta langileei ezartzen zaien lan-prekaritateari aurre egiteko eta zerbitzu publikoen kalitatea defendatzeko.

ELAk egoera prekarioenean dauden langileen ahotsa izateko konpromisoa hartu du, baita sektore publikoan ere.

ZERBITZUAK

Mari Cruz Elkoro Zerbitzuak ataleko idazkari nagusiak azaldu duenez, bere federazioan epealdi trinkoak gero eta kontzentrazio gutxiago du eta hauteskundeak etengabe egiten dira. "Hemendik abendura bitartean, egungo ordezkarien % 16a baino ez da aukeratuko, eta datozen 6 hilabeteetan, % 40a".

Helburu zehatzei buruz hitz egitean, Elkoro azaldu du une honetan EAEn duen ordezkarietza % 37,72koa dela, eta ezartzen den helburu nagusia % 40ra ahalik eta gehien hurbiltzea dela. Horretarako, garrantzitsua da egungo emaitzak errepikatzea eta hauteskunde asko egitea etengabe sortzen ari diren enpresa berrietan. "Zerbitzuen sektoreak gero eta pisu handiagoa du euskal ekonomian. Enpresa asko ari dira sortzen, eta zenbakietatik haratago hauteskundeak egiteko gai izatea eta enpresa horiek sindikalizatzea aukera paregabea da ordezkari gehiago lortzeko. Eta ordezkariak izateak, zentro

»»» Botoa ELAri ematearen garrantzia

Hauteskunde sindikalen beste epealdi trinko bati eman zaio hasiera irailan. EAeko eta Nafarroako ia milioi bat soldatapeko hautestontzietara deituta daude euren ordezkari sindikalak eta euren enpresan lan-eskubideak defendatuko dituzten lankideak aukeratzeko.

Hedabideetan oihartzun txikia izan arren, hauteskunde sindikalen emaitzak garrantzi handia du enpresa edo sektore baten etorkizunerako, baita herrialde osoarentzat ere. Azken finean, lan-harremanak desberdinak izango dira eredu sindikal nagusia bat edo beste izan. Ez da gauza bera sindikatu nagusiak kontrabotere-eredu sindikal baten alde egitea, ELAren kasuan bezala, edo boterearen ondoan egotea.

Askok delako jokoan dagoena, ELAK mobilizatzeko eskatu die bere militanteei eta afiliatuei, ELAK herri honetako sindikatu nagusia izaten jarrai dezan. Eta tarte handiagoarekin bada, are hobeto.

»»» Zergatik eman behar zaio botoa ELAri?

Behar den unean, jendeak sindikatua gehien behar duenean, ELAK eskaintzen duena da balio duena: zerbitzuak, antolaketa, Erresistentzia Kutxa bezalako borrokarako tresnak eta zerbitzu juridikoak.

Hori guztia, gainera, ELA ekonomiaren eta politikaren ikuspegitik erakunde erabat independentea dela ahaztu gabe.

Botoa ematea garrantzitsua da. ELAri botoa ematea.

gehiagotara iritsi ahal izateko lantaldeak osatzeko aukera ematen digu, gure federazioa osatzen duten sektore asko sakabanatuta daudelako”.

Elkorok militante-taldeak egiten ari diren lan bikainari egotzi dizkio federazioaren emaitza onak. “Militanteak funtsezkoak dira gure federazioan; horiei esker, lantoki berrietara iritsi gara, negoziazio kolektiboari ekin diogu eta negoziazio-es-parru berriak ireki ditugu, zerbitzuen sektore osoan oso zabaldua dagoen lan-prekari-tateari ekin ahal izateko”. Horri dagokionez, arduradun sindikal honek erreferentziatzeko borrokan garrantzia azpimarratu du. “Kolektibo batek garaipena lortzen duenean, beste batzuk garaipena posible dela sinestera animatzen dituen erreferentea markatzen du”.

Gauzak horrela, Elkorok baikor begiratzen dio etorkizunari. “ELA da sektoreko borroka erreferentea, eta ziur gaude bere lan-baldintzak hobetzeko borroka egiteko prest dagoen jendeak ELAri emango diola botoa. Afiliazioan lortzen ari ga-

“ELA es el referente de lucha en el sector y estamos convencidos/as de que la gente que está dispuesta a pelear para mejorar sus condiciones laborales va a votar a nuestro sindicato”

ren emaitza bikainak horren zantzu garbia dira, eta ildo berean inurri lana egiten jarraitzea animatzen gaituzte”.

INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA

Unai Martinez, Industria eta Eraikuntzako idazkari nagusia, berriz, ilusioz beteta eta sindikatuak sektorean duen ordezkartza handia sendotuko duela ziur dago. “EAEn % 40tik gora gaude, bigarren sindikatuaren ordezkartza bikoitza baino gehiago dugu, eta Nafarroako metalgintzako lehen sindikatua



izateko UGTrekin lehia gogorrean ari gara”.

Hautagaitzak prestatzeko prozesuan, emakumeak sartzeko federazioa egiten ari den ahalegina nabarmendu du Martinezek. “Ezin dugu federazio maskulinoa izaten jarraitu, sindikatu feminista bateko kide garelako. Aukerak, ahotsa eta protagonismoa eman behar dizkiegu emakumeei, arreta haien arazo espezifikoetan jarriz. Zailtzarrik gabe, berdintasuna erronka bat da oraindik gure federazioarentzat eta gure federazioa osatzen duten sektoreentzat”.

Industria eta Eraikuntzako idazkari nagusiak gogorarazi duenez, azken kongresuan federazioak apustu argia egin zuen hiru kolektibok (emakumeak, etorkinak eta gazteak) jasaten dituzten diskriminazioekin amaitzeko. “Hiru kolektibo horiek prekaritatera kondenatzen ari dira. Oso garrantzitsua da ELAk gero eta ordezkari-tza handiagoa izatea, diskriminazio modu guztien aurka borrokatzea lehenetsunezko helburu gisa ezarri duelako”. Ildo horretan, Martinezek nabarmendu duenez, lantoki sindikalizatu batean, hau da, hauteskundeak egin dituen eta ordezkari sindikalak

“Solo un centro de trabajo sindicalizado, es decir, que haya realizado elecciones y cuente con representantes sindicales, tiene posibilidades de luchar contra las distintas caras de la precariedad”

dituen lantoki batean, baino ez daude prekaritatearen aurpegiak aurka borrokatzeko aukerak.

Azkenik, Martinezek gogora ekarri ditu urte honetan beren lanpostuetan hil diren 57 pertsonak. Hondamendi hori onartezina dela esan du, eta horri aurre egiteko eskatu du. “Sindikatu kide izatea langile-klasearen osasun fisiko eta mentalerako ere ona da”. ■

- 1. Hauteskunde sindikalak** egitea gure eskubidea da eta beharrezkoa da. Ahotsik gabe, ordezkariarik gabe ez dago babesik.
Elecciones sindicales: un derecho, una necesidad.
 Sin voz, sin representación, no hay defensa.
- 2. Azken urteak oso gogorak izan dira, eta orain gure indar guztiak batu behar ditugu.**
Estos años han sido muy duros, y necesitamos emplear todas nuestras fuerzas:
 de entrada, tenemos que elegir a nuestras delegadas y delegados.
- 3. 102.000 kidetik gora,** horiek dira gure independentzia ekonomikoaren eta politikoaren bermea.
Más de 102.000 personas afiliadas aseguran nuestra independencia económica y política.
- 4. Erabateko autonomia:** langile-klasearen interesak gure jomuga dira. ELAk ez beste inork esan dezake hori.
Total autonomía: solo nos gulan los intereses de la clase trabajadora.
 Solo ELA puede decir esto.
- 5. ELArentzat garrantzitsua jendea antolatzea da.** Eta hauteskunde sindikalak dira denaren abiapuntu.
 Lo más importante para ELA es **organizar a la gente.**
 Todo empieza por las elecciones sindicales.
- 6. Hautetsiek sindikatu sendo eta konprometitu baten babesa behar dute. Sindikatua inoiz baino beharrezkoagoa da.**
 Las personas elegidas precisan el respaldo de un sindicato fuerte y comprometido.
La organización es más necesaria que nunca.
- 7. Gauzak aldatzeko** konpromisoa hartzen du ELAk, eta konplexurik gabeko sindikalismo zuzen eta zintzoaren aldeko apustua egiten du.
 ELA se compromete a **cambiar las cosas,** apostando por un sindicalismo sin complejos, honesto y directo.
- 8. A la hora de la verdad,** ELA va a estar ahí, hasta donde tú quieras.
Gehien behar duzunean, ELA zurekin egongo da, zuk nahi duzunera.



HAUTESKUNDE SINDIKALAK
ELECCIONES SINDICALES



#SektorePublikoaKalera

**2023: IPC+
bai ala bai!**



Aktibatu
Lortu
Zaindu



**55.000
LANGILE
KONTSOLIDATU**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

NEGOCIACIÓN COLECTIVA 2023:

Garantizar el IPC sí o sí

La negociación colectiva de 2022-23 se desarrolla en una coyuntura marcada por la guerra y una inflación desbocada que está provocando el empobrecimiento de la clase trabajadora. ELA ha decidido poner el sindicato al servicio de la gente dispuesta a luchar por mejorar sus condiciones laborales y unas subidas salariales vinculadas al IPC.

»»» SERVICIOS PÚBLICOS

ELA impulsará huelgas para garantizar el IPC y que las condiciones se negocien aquí

ELA impulsará movilizaciones y huelgas en el sector público vasco para que la subida salarial de las y los trabajadores públicos esté vinculada con el IPC y para que sus condiciones laborales no se decidan en Madrid sino que se negocien aquí.

Igor Eizagirre, secretario general de Gizalan, insiste hasta la saciedad en el hecho de que “es una cuestión de voluntad política que eso sea así”, al tiempo que denuncia que “las condiciones laborales en el sector público no paran de empeorar”. “En estos momentos -explica- más de 55.000 personas son temporales en las Administraciones de la CAPV y 15.000 en las de Navarra”.

En concreto, ELA denuncia que a la vista de las propuestas que están sobre la mesa para 2023 y de cómo se puede cerrar el IPC, la pérdida acumulada de poder adquisitivo de las personas empleadas en el sector público será superior al 20% para 2023.

Por eso, el sindicato reivindica que, una vez se consiga que las condiciones laborales de los funcionarios se decidan en EH, las negociaciones garanticen el poder adquisitivo perdido en 2022 (4,5%) y el IPC de 2023. Asimismo, exige “abrir una negociación para recuperar el poder adquisitivo perdido en la última década”.

En materia de empleo, Eizagirre demanda que se impulsen procesos de consolidación que reduzcan la temporalidad al 6%, al tiempo que

“Ikusirik 2023rako mahai gainean dauden proposamenak eta KPla nola itxi daitekeen, ELAk salatu du datorren urtean enplegatu publikoek metatuko duten galera %20tik gorakoa izan litekeela”.

advierte de que sería inconcebible por parte de los partidos vascos apoyar los Presupuestos del Estado sin, al menos, garantizar la supresión de las tasas de reposición porque “no se puede permitir que Madrid decida las necesidades de empleo de nuestro sector público”. Junto a ello, reclama ratificar la posibilidad de negociar procesos de consolidación extraordinaria.

La necesaria huelga

Igor Eizagirre es consciente de que las decisiones políticas no van en la línea de las reivindicaciones del sindicato por lo que habrá que impulsar movilizaciones y huelgas. Para ello se han iniciado contactos con otros sindicatos.

Las primeras movilizaciones se llevaron a cabo el 19 de octubre.

»»» INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA

Convenios con subidas por encima del IPC y cláusulas de inaplicación

Unai Martínez, secretario general de la Federación de Industria y Construcción, está convencido de que para evitar el empobrecimiento de la clase trabajadora hay que reivindicar y luchar por subidas salariales por encima del IPC. “El año pasado la vida subió el 6,5%, y este año estamos rondando el 9%. Si no logramos subidas por encima del IPC nuestra gente será cada día más pobre, y queremos que ELA sea un instrumento para evitar el empobrecimiento”. Martínez desvela que ELA está firmando numerosos convenios con subidas referenciadas al IPC, y que ello es posible gracias a la organización y la lucha. “Hay mucha conflictividad porque los convenios no caen del cielo”, explica, al tiempo que destaca, también, las dificultades para mantener las peleas en “unidad de acción” con otros sindicatos. La falta de acuerdos con compromisos concretos con LAB es algo que preocupa a este responsable sindical. “Antes había dos bloques: los sindicatos



estatales, para los que la firma del convenio, independientemente de los contenidos, era el objetivo; y los sindicatos vascos, que queremos convenio con contenidos y utilizamos la huelga como medio para lograrlo. Ahora vemos con preocupación cómo LAB se ha ido deslizando hacia ese primer bloque”, critica.

Al realizar un recorrido por la negociación colectiva, este responsable sindical hace mención especial a tres largos conflictos: Novaltia, más de tres años en huelga; Vulcanizados Zuloaga, más de un año; e ITS/Gertek. Unai Martínez afirma que ELA siempre intenta llegar a acuerdos pero la apuesta de las direcciones de estas empresas está obligando a mantener las huelgas en el tiempo. Este responsable sindical denuncia, asimismo, el papel jugado por una Inspección de Trabajo que “o no hace su trabajo o está en el bando de la empresa”.

A nivel sectorial, además del convenio del Metal de Araba, se están negociando tanto el metal de Bizkaia como el de Navarra.

En Navarra, ELA es el sindicato mayoritario y ha realizado una propuesta de mínimos al resto para intentar aunar fuerzas, sin respuesta. En Bizkaia, por su parte, se llevaron a cabo tres jornadas de huelga en junio y julio, y el planteamiento de ELA al resto de sindicatos es continuar con las huelgas. Sin embargo, la falta de un acuerdo de mínimos entre los sindicatos y el precedente del anterior acuerdo hace que Unai Martínez no sea muy optimista respecto al desenlace final del convenio.

Así las cosas, la apuesta de ELA es clara: tras intentarlo todo en el sectorial, ir a las empresas en las que haya organización y fuerza para intentar negociar buenos convenios. “Quien quiera mejorar sus condiciones laborales tiene la puerta



“Hitzarmenetan bermatu behar da sortzen dugun aberastasunaren banaketa justuagoa. Diskriminazioak desagerraraziko ditugu: generokoak, gazte eta immigranteen aurkakoak; halaber, ezinbesteko gutxienekoak dira lanaldia murriztea eta lan-erreforma enpresetatik kanpo uztea”.

abierta en ELA. Vamos a luchar por firmar convenios en los que se reparta la riqueza que generamos de manera más justa. Acabar con las discriminaciones de género, jóvenes e inmigrantes, reducciones de jornada y dejar fuera de las empresas la reforma laboral son mínimos irrenunciables”.

Finalmente, el secretario general de Industria eta Eraikuntza insiste en el hecho de que no basta con firmar buenos convenios sino que hay que garantizar su cumplimiento, por eso destaca la importancia de las cláusulas de inaplicación. “Los convenios se firman con acuerdo, y su no aplicación también debe ser por acuerdo”, rubrica.

»» ZERBITZUAK

Plantando cara a la precariedad y el empobrecimiento de las plantillas

Mari Cruz Elkoro, secretaria general de Zerbitzuak (el sector servicios privado) es tajante: “No vamos a firmar ningún convenio que no garantice, al menos, el IPC”, por lo que anticipa un otoño-invierno caliente. Caliente e intenso, porque la federación tiene ni más ni menos que 83 convenios atrasados o que toca negociar.

Uno de los sectores importantes es el comercio textil de los tres territorios de la CAPV y Navarra. Ha habido huelgas antes del verano y ahora se preparan para realizar nuevas movilizaciones en fechas estratégicas como el Black Friday y el puente de la Inmaculada. ELA, junto a LAB, ha convocado huelga en el comercio de Bizkaia los días 4 y 25 de noviembre. Las principales reivindicaciones son subidas salariales ligadas al IPC, cláusulas ligadas a la digitalización, cláusulas que garanticen el mantenimiento del empleo, distribución de jornada... Por lo que respecta a la negociación por centros en el comercio, ELA ha logrado buenos convenios en Medical Optica y MerkaCalzado, lo que anima al sindicato a seguir esta línea.

En Hostelería de Bizkaia también habrá movilizaciones y huelga, en solitario, tras el descuelgue de LAB. Elkoro resalta en este sector la importancia de que las marcas de restauración de cadenas internacionales no consigan salirse del provincial para aplicar un convenio de empresa estatal con salarios ligados al SMI.

En Hostelería de Araba y Navarra, UGT y CCOO conforman la mayoría, por lo que no parece que vaya a abordarse la situación de las Kellys (camareras de pisos), algo que sí ha logrado ELA donde es mayoría, en Bizkaia y Gipuzkoa, consiguiendo el derecho de subrogación de estas trabajadoras. "Luchar contra la precariedad de un colectivo que tiene un componente de género y racial importantísimo es una prioridad".

Esta responsable sindical tiene claro que en este sector el convenio de referencia debe ser el de Alojamientos de Gipuzkoa, firmado antes del verano, al tiempo que destaca que en este territorio se está trabajando hotel a hotel en los planes de prevención de riesgos laborales relacionado con las cargas de trabajo, un aspecto muy importante que

“Aldizkako kontratu finkoa arautzea da Zerbitzuak federazioaren helburuetako bat, izan ere, azken lan-erreformak miseria zeharo legezatu baitu”.

debe estar acordado en el plazo de 12 meses.

Por lo que respecta al sector de la Limpieza, la negociación de los convenios provinciales está teniendo resultados poco satisfactorios, y el sindicato se está volcando en abordar la brecha salarial centro a centro. En estos momentos hay conflictos abiertos en el Plaza Bizkaia, Ayuntamiento de Hondarribia e Irizar, y se está llevando a cabo una selección de centros donde, en breve, se van a iniciar luchas similares.

Gestión deportiva es otro sector en el que hay negociaciones abiertas. En Navarra se han llevado a cabo varios días de huelga, y una vez cerrado el sectorial se irá a la negociación centro a centro. En

Bizkaia toca la negociación en 2023 y Elkoro recuerda cómo en el anterior convenio fue necesario mes y medio de huelga para lograr la cláusula de inaplicación “que tan bien ha venido a los trabajadores y trabajadoras del sector durante la pandemia”.

La secretaria general de Zerbitzuak destaca la regulación del contrato de fijo discontinuo como otro objetivo de la negociación colectiva en su federación, “porque la última reforma laboral ha legalizado la miseria de forma espectacular”.

Finalmente, Elkoro no olvida la campaña contra la precariedad que está desarrollando el sindicato en los últimos meses y adelanta que está muy avanzado el mapa de la precariedad en los sectores que conforman su federación. “Tras el diagnóstico toca poner en marcha planes para abordar esa problemática. ELA se ha marcado como objetivo irrenunciable plantar cara a la precariedad y al empobrecimiento de las plantillas”. ■



Oportunidad perdida en el Metal de Araba

ELA no firma un convenio que se queda lejos de los contenidos mínimos que el sindicato acordó con LAB y CCOO; con unas subidas salariales, además, que, de facto, no van a aplicarse al 90% de las personas del sector

> Landeia

Igor Iglesias, responsable del Metal de Araba, no duda en calificar de “oportunidad perdida” para dar un salto adelante en las condiciones laborales de las trabajadoras y trabajadores metalúrgicos alaveses el convenio sectorial del Metal firmado por LAB, CCOO y UGT. Un convenio que el sindicato rechaza tanto en el fondo -contenidos insuficientes- como en la forma, en víspera de tres días de huelga en el sector que contaban con un amplio apoyo. Con su firma, además, LAB y CCOO incumplían el acuerdo de mínimos firmado con ELA. Unos mínimos que pasaban por incrementos salariales vinculados al IPC en tablas y salarios reales y una reducción de jornada importante. Aspectos ambos a los que estos sindicatos renuncian hasta el 2026, fin de vigencia de este nuevo convenio. En definitiva, el Metal de Araba sigue teniendo los salarios más bajos y la jornada más larga de toda Euskal Herria.

Para Igor Iglesias, la claudicación de LAB fue una sorpresa inesperada, un mal chiste. Y así lo entendieron, también, los delegados y delegadas de ELA del sector, que rechazaron firmar el convenio. Y es que, tal como explica este responsable sindical, “tras años de convenios firmados en minoría habíamos conseguido movilizar al sector. La gente tenía ganas de pelear y estoy convencido de que haber realizado las tres

jornadas de huelga previstas habría supuesto unos contenidos mucho mejores”, defiende Iglesias.

Iglesias destaca el hecho, además, de que “las subidas salariales pactadas no van a afectar a alrededor del 90% de las personas del sector, cuyas empresas tienen acuerdos salariales propios, por encima de los pactados”.

ELA subraya que el acuerdo alcanzado por UGT, CCOO y LAB con la patronal solo ha buscado desactivar las huelgas convocadas para el 21, 22 y 23 de septiembre. De hecho, ELA destaca que son las huelgas realizadas hasta ahora las que han forzado a la patronal SEA a ofrecer mejoras que no se han conocido en Araba desde hace décadas. Hay que recordar que el último convenio en mayoría se firmó nada menos que en 1999.

Acuerdos rotos

En este caso, además, CCOO y LAB han incumplido el acuerdo de unidad de acción con ELA para que cualquier cambio sobre contenidos y movilizaciones fuera acordado entre los tres sindicatos.

Aparte de la cuestión salarial, el acuerdo recoge algunas mejoras, pero no contempla contenidos importantes de la plataforma reivindicativa como los complementos de la baja en enfermedades comunes o el blindaje contra la inaplicación. En este sentido, UGT, CCOO y LAB dejan la puerta abierta a que las empresas se valgan de la reforma laboral de Rajoy para descolgarse del convenio sectorial. Además, la reducción de jornada es insuficiente.

Ante ello, ELA seguirá trabajando empresa por empresa para que las plantillas mejoren de verdad sus condiciones laborales, ya que el convenio sectorial acordado por UGT, CCOO y LAB no avanza en el reparto de la enorme riqueza que están produciendo las empresas alavesas. ■





URRIAK
28
OCTUBRE

BIZKAIKO
OSTALARITZA
GREBAN!



ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Irabazi arte, beti

ELAk Gipuzkoako Egoitzetako langile grebalariak zoriondu ditu egindako borrokarengatik, eta amore eman ez dezaten animatu ditu, UGTk, patronalek eta Gipuzkoako Aldundiak joko zikina egin arren

> Landeia

Amorrua, haserrea, sinesgaiztasuna... eta borroka dela bidea berrestea. Zalantzarik gabe, sentimendu horiek dira nagusi Gipuzkoako Egoitzetako langileen artean. UGTk, sektorean % 7ko ordezkaritza izanik, uztailearen 29an Adeg, Lares eta Garen patronalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritziarekin eraginkortasun mugatuko hitzarmen bat adostu zuenetik. Akordio hori ez da nahikoa, ezta gutxiagorik ere, eta antidemokratikoa ere bada; sektoreko langileen % 93ri bizkarra ematen die, eta lau urte baino gehiagoz emakume horiek

beren lan-baldintzak eta gizarte honetako sektorerik zaugarriena diren erabiltzaileei eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatea defendatzeko izandako borroka eredugarria hondatzeko ahalegina da. Hala ere, sindikalismoan, bizitzan bezala, hiltzen ez gaituenak indartsuago egiten gaitu, eta ELAko sektoreko militanteek inoiz baino gehiago sentitzen dute borroka dela bidea.

Gutxiengoan dagoen hitzarmen horren sinatzaileak ez ziren konformatu prekaritatearekin amaitzen ez duten eta sektoreko soldata- eta genero-arrakala areagotzen duten eduki urriak adostearekin. Horrez gain, langile intsumisoak zigortu nahi izan zituzten, atxikimendu pertsonalerako gehieneko

La Diputación de Gipuzkoa ve a ELA y a las trabajadoras de las residencias como enemigos del modelo asistencial que quiere perpetuar.

epea ezarritz, bai eta grebarako eskubideari uko egitea eskatuz ere.

UGT, eskirola

Zoritarrez, ez da UGTk antzekoa egiten duen lehen aldia. 2011n, sektore horretan bertan, eraginkortasun mugatuko hitzarmena sinatu zuen CCOOrekin, oso atxikimendutestu berdintsuarekin, eta Auzitegi Gorenak gerora adierazi zuen antisindikala eta, beraz, legez kanpokoa zela.

Jakina, ELA ez zen besoak gurutzatuta geratu eraso horren aurrean, eta gertatutakoa jende aurrean salatzeaz gain, hitzarmen horren aurka egin zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, diskriminatzailea eta antisindikala zelako.

Bitxia bada ere, irailaren 23an, epaiketaren aurreko adiskidetzekitaldian, sinatzaileek, salatutako artikulua guztiak ezabatzen zituen testu berria aurkeztu zuten: hitzarmenari atxikitzeke araubidea aldatu eta 15 artikulua baino gehiago kendu zituzten, tartean bake sozialari zegokiona. Aurreikusten zuten kolpe judiziala saihesteko mugimendua izan zen. Horrela, patronal sinatzaileek eta UGTk "de facto" arrazoia eman zioten ELAri.

Horrek egiaztatzen du, halaber, akordioaren sinatzaileen helburuak, Gipuzkoako Foru

Aldundiaren adostasunarekin, beren lan-baldintzak eta zainketen kalitatea defendatzeko 260 egun baino gehiagoko greba egin duten langileek amore ematea bilatzen zuela.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jokaera, ulertezina?

Inork ezin du zalantzan jarri hitzarmen hau gutxiengoan sinatzea jarduera ez duina, diskriminatzailea eta antidemokratikoa denik, eta hiru arduradun nagusi dituela: UGT, patronalak eta Gipuzkoako Aldundia.

Sektoreko lau patronaletatik hiruk –Adegi, Lares eta Garen– akordioa sinatu izanak ez du sorpresarik sortu. Beraiek nahi duten guztia betetzen duen hitzarmena da: ona eta polita (beren interesetarako) eta, batez ere, merkea. Azken finean, enpresentzat zainketak negozio-iturri dira, diru publikoaren bidez eta langileen eta egoiliarrei ematen zaien zerbitzuaren kontura.

Ezusteak ez bada ere, aho-zapore txarra uzten du ikusteak, sindikatu izena merezi ez duen UGTk ez duela zalantzarik izan sektoreko langileak desaktibatzeke enpresen zerbitzura jartzeko orduan. Oso erraza da beste sindikatu batzuek egindako greba eta mobilizazioei esker lortutako hobekuntzez jabetzea. Horri sindikalismo parasitarioa esaten zaio.

Baina, zalantzarik gabe, haserre handiena sortzen duena Gipuzkoako herritarren interesak ordezkatzeko dituela dioten erakundearen jarduna da, gatazka hasi zenetik enpresen alde jarri baita, langileak hartzeari uko eginez eta ELAk bere garaian sektoreko hainbat patronalekin lortu zuen aurre-akordioari boikota eginez.

Aintzane Orbegozo sektoreko arduradunaren iritziz, “urte hauetan ELAk Aldundiarekin izan dituen elkarrizketa saio guztiak antzuek izan dira, izan ere, erakundeak ELA zigortzea bilatzen zuen, emakume langileen bahiketa erabiliz”.

Aldundiko agintariek ELAren aurka duten ezinikusia urrunetik dator: ELA

Rabia, indignación, incredulidad... y reafirmación en que la lucha es el camino. Esos son los sentimientos dominantes entre las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa desde que UGT, con un 7% de representación, acordara un convenio de eficacia limitada con las patronales Adegi, Lares y Garen y el visto bueno de la Diputación de Gipuzkoa.

eta egoitzetako langileak, Aldundiak betikotu nahi duen laguntza-ereduaren (enpresentzako negozioa, zerbitzu publikoaren kalitatearen kontura, eta lan-esplotazioan oinarrituta) etsai gisa ikusten dituzte.

Eredu hori finantzaketa publikoarekin (Gipuzkoako herritarren zergak) elikatzen da % 90ean, baina propagandak oso lan-baldintza eta arreta asistentzial prekarioak ezkututzen ditu (24 orduetan 90 minutu erabiltzaileentzat). Ekuazioa oso erraza da: diru publikoa, lan-baldintza txarrak eta arreta eskasa negozio segurua eta dibidenduen banaketa dira.

Zalantzan jarritako zaintza eredia

Eredu horrek arrisku larria izan zuen pandemian, eta agerian utzi zituen bere asistentzia-gabeziak eta izaera neoliberala. Orbegozok gogorarazi duenez, “ELAk zerbitzu juridikoez langileen eta erabiltzaileen osasuna bermatu nahi izan zuten. Ez da ahaztu behar, adibidez, enpresek langileei eman zieten lehen babes-

materia zabor-poltsa batzuk izan zirela...”.

EAJri ez zitzaizkion gustatu ELAk egoitzen errealtatearen aurka etengabe egindako salaketak. Orbegozok argudiatu duenez “agian horregatik, Aldundiak estrategia bikoitza prestatu zuen: alde batetik, egungo eredia zalantzan jartzen ez duen eta pandemia ondoren aurpegia garbitzea helburu duen *Liburu berdea: etorkizuneko egoitzarantzko trantsizioa* izeneko egoitzetako plan estrategikoa gizartearen aurrean aurkeztu zuen. Eta, bestetik, emakumezko langileek amore emateko plana diseinatu zuten... eta hori hitzarmenari babes eman zuten gauzatu dute”.

Aldundiak isilarazi egin nahi ditu bere zaintza-eredua zalantzan jartzen duten ahotsak. Hor dago gakoa. Pertsonengan oinarritutako ereduaz hitz egiten dute, baina agerikoa da, eta gertatutakoan oinarritzen gara, ez dela bateragarria enpresetako akziodunak pozik uztea eta langileen eta egoiliarren arreta hobetzea. ■

La lucha continúa

ELA tiene claro que la lucha es más necesaria que nunca, por lo que anima a las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa a seguir peleando por un sistema de cuidados donde se priorice la calidad del servicio y en el que las trabajadoras tengan condiciones laborales que permitan ofrecer un trato humano adecuado a las personas residentes. Con su lucha, las trabajadoras de las Residencias de Gipuzkoa han hecho aflorar lo cotidiano, como las enormes cargas de trabajo, la falta de sustituciones o el aumento de los riesgos psicosociales. Con su actitud, Diputación y empresas demuestran haber olvidado de la noche a la mañana el enorme esfuerzo realizado por este colectivo durante la pandemia, poniendo en riesgo su salud e, incluso, su vida, para cuidar a las personas más frágiles de nuestra sociedad. ■

Belarriprest ala Ahobizi. Bata ala bestea aukeratu, eta aktibatu. Izan ere, bada bada hitzez ekiteko garaia Hala uste dute Euskaraldiaren antolatzaileek. Hortaz, azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskaraldiaren hirugarren edizioan murgilduko gara, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko helburu duen ariketa sozial kolektiboan

Euskaraldia: Hitzez ekiteko garaia

> Nagore Uriarte

Korrikari aipamen eginez, Zaldierok BERRIAN argitaratutako binetak hala zioen: "Egun hauetan hunkigarria da pentsatzea edozein ordutan, nonbait, zoro zoragarri batzuk euskararen alde korrika dabiltzala". Antzeko konplizitate atzematen da Euskaraldian. Korrikan lekukoa eskutik eskura pasatzen den bezala, Euskaraldian euskara ahotik ahora doa.

Aurtengo edizioaren leloak "Hitzez ekiteko garaia", ordea, hitzetatik ekintzetara pasatzera gonbidatzen gaitu. Aktibazioaren urtea dela diote antolatzaileek. Bat dator **Itxaso Perez Aramburu**, ELAko euskara arduradun berria. Erronka handia bada ere, aurtengo ere ilusioz ekingo dio Euskaraldia-ri, oraingoan ELAko euskara arduradun lanetan. "Askorentzat Euskaraldia aukera bat da, egunerokoan erabiltzen ez duten hizkuntza berreskuratzeko parada. Euskaraz hitz egiteko prestutasuna duen jendea aktibatze momentua da, eta beharbada horrek etorkizuneko aktibazio eragin dezake", dio baikor. Euskaraldian ikur bilakatu diren txapak -Belarriprest edo Ahobizi- ahaldunderako tresna eta ikurrak direla uste du. "Txapa eramateak prestutasuna agertzen du ekimen horretan parte hartzeko, hizkuntza zapalduetako hiztunok



Itxaso Pérez

ditugun konplexuak alboratzeko bultzada da. Euskara ikasten ari diren pertsonak animatzen dira prozesu hori bistaratzera. Askotan guk geuk ez dakigu geure auzoko okinak badakiela euskaraz. Euskaraldiak hori deskubritzeko aukera ematen digu. Pista gehiago ematen dizkigu jabetzeko euskara badagoela guk geuk uste baino leku eta pertsona gehiagotan".

ELAldaketa

Euskaraldian buru-belarri sartu baino lehen, izango du trebatzeko aukerarik. Izan ere, Euskaraldia azaroaren 18an hasiko bada ere, ELA lehengo ekin dio esperimentuari, **ELAldaketa** martxan jarrita. "**ELAldaketa** Euskaraldi iraunkorra da. Izan ere, Euskaral-

dia oasi moduko bat da. Horregatik, sindikatuan esperimendu moduko bat bat egingo dugu ekimena luzatzeko asmoz. 20 boluntario konprometitu izendatu dira. Horiek guztiek 15 egunez euskara hutsean hitz egingo dute. Txapa bat eramango dute, 'nik euskaraz' leloarekin. Besteek gaztelaniaz nahiz euskaraz hitz egin, eurek euskaraz jarraitu beharko dute, aurrean dutenak ulertzen badu. 15 egun pasatuta, bakoitzak beste pertsona bat hautatu beharko du. Guztira 80 lagun arituko dira eta Euskaraldia hastean dinamika normalarekin jarraituko dute.

Ilusioa eta ardura

Euskaraldiaren aurkezpenean halako ariketa kolektibo batek sortzen duen ilusio kolektiboa nabarmendu zuten antolatzaileek. "2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu ariketari", azaldu zuten. Ados dago Itxaso, baina argi dauka ilusioa ezin zaiola ardurari gailendu. "Ardura ezin da soilik Euskaraldiarena izan. Ardura konpartitua da eta denboran luzatu behar da, 365 egunean".

Nire errua al da?

Euskaraldia ahaldunderako ariketa kolektiboa dela aitortu arren, arriskuak ere baditu, bere ustez. "Oasi moduko batean bizi gara 11 egunez, denok daramagu txapa soinean, denok

gara oso proaktiboak, baina Euskaraldia amaitu ostean, zer? Euskaraldia bada gizartea aktibatzeneko modu bat, baina ardura hori herritarren bizkar uzten du, norbanakoaren gain. Badi-rudi gure erantzukizuna baino ez dela euskaraz hitz egitea. Noren ardura da euskaraz lan egin dezakegula bermatzea ala euskarazko zerbitzuak jaso ditzakegula ziurtatzea? Administrazio publikoa ez da zuzen interpelatzen eta erakundeek lan handia dute. Haiek daukate aurrerapausoak emateko giltza. Lanean, aisialdian, kontsumoan... ez bada euskara bermatzen ez dugu ezer egiterik, nahiz eta gu oso hiltun konprometitua izan”.

Bidegurutzean

Perezen ustez, administrazio publikoan bidegurutzean gaude. Izan ere, langile askok erretiroa hartuko dute. “Erreleboa egiterakoan bermatu behar da sektore publikoa euskaldun-duko dela, baina horretarako exijentziak finkatu behar dira, hizkuntza eskakizun minimo batzuk eskatu behar zaizkie erakunde publikoetan lanean hasiko direnei, eta erraztasunak eman”.

Aurrekoaren ildotik, ELAk, LABek eta Kontseiluak epemuga finkatu dute: 15 urtean EAEko administrazio publikoak euskalduna izan behar du. Hala uste dute hiru eragileek eta hala adierazi zuten irailaren 26an egindako prentsaurrekoan. Gauzak horrela, sektore publikoaren euskalduntzeari epemuga ezarri diote eta helburu hori lortzeko proposamenak aurkeztu dituzte. Aurkeztutako dokumentu bateratuak neurri zehatzak jasotzen ditu: lanpostu guztietan euskarazko gutxieneko ezagutzak bermatzea; helburu eta epe zehatzak ezartzea; euskarazko zirkuituak eta unitateak

“El compromiso individual es importante, pero si las administraciones no garantizan el derecho a hablar en euskera en el trabajo, el ocio o el consumo no hay nada que hacer”.

sortzea; langileak euskalduntzeko formazio programa sendoak garatzea; edota zehaztea zein ondorio izango litzuzkeen helburuak ez betetzeak.

Ez da, ordea, lan makala. Perezen ustez, adierazgarria da berriki udaltzaingoaren lan poltsarekin gertaturikoa. Izan ere, Gasteizko Administrazio Auzitegiak erabaki du ez dela beharrezkoa izango euskarazko B2 maila egiaztatzea udaltzainen lan poltsan sartzeko. ELAk, LABek eta Kontseiluak larrizat jo dute erabakia eta salatu dute, beste behin ere, epaileek euskaldunon hizkuntza eskubideak urratu dituztela.

Autokonplazentzia?

Autokonplazentzian erori ote gara? “Zenbait espaziotan ohikoa da entzutea euskara momenturik onenean dagoela. Normalizazioaren oso une kritikoan gaude. Euskara ez da gure bizitzaren parte. Garai batean, hezkuntza euskalduntzeko erronka potoloa zeukaten, ikastolak sortu zituzten eta lan handia egin zuten, baina dena eginda dagoenaren sentazioa zabaltzea arriskutsua da. Ez dezagun ahaztu gaur egun beste helburu batzuk ditugula, eta euskararen ezagutzak ez duela erabilera ekarri”, kexu da.

Gozatu, euskaraz

Perez gozamenaz mintzo da. Kontsumoan dago giltza, bere ustez. “Gaur egun, zoritxarrez, aisialdiaren oinarrian kontsumoa dago. Gazteak erosketak egitera doazenean, adibidez, zer da jasotzen dutena? Bilboko Kale Nagusira joatea besterik ez dago, saltoki guztietako errotulazioa gaztelaniaz edo ingelesez dago. Normala da gazteek gaztelaniara jotzea. Ze hizkuntzatan dira kontsumitzen dituzten produktu guztiak? Gaztelaniaz edo ingelesez. Netflix, HBO... ez dago ezer euskaraz. Nola lotuko dute euskara aisialdia eta gozamenarekin? Badira alternatibak, baina zaila da erdaraz jasotzen dugun mainstreamaren inputari aurre egitea”.

Lan mundua

Oasietara mugatzeko arriskuan ez erortzeko, Euskaraldia igarota, zeintzuk izango dira ELAren etxerako lanak? “Lan munduan langileon hizkuntza eskubideak aldarrikatu behar ditugu, baita erabiltzaile guztienak ere. Kontsumoan egoera irauli behar da. Edozein administrazioan harrera euskaraz jaso dezakegula bermatu behar dugu. Eskubide zibila da, beraz, bermatu behar da”.

Urte luzez irakaskuntzan aritu bada gero, Itxaso Perezek ez du ukatzen ELA euskara arduraduna izatea erronka potoloa denik. “Orain arte egindakoa errotik aldatzea da. Profesionalki ez dakit noraino iritsiko naizen, baina gauza bat argi daukat: ELA sindikatu handia da eta baditu tresnak gauza asko aldatzeko. Interpelaziorako agente garrantzitsua da, badu horretarako gaitasuna. Enpresetara heltzea eta bertan planak negoziatzea aurrerapauso itzela da. Euskara negoziazio batean erdigunean jartzea urrats handia da”. ■



160 delegatu sindikal batu ziren Bilbon, ELAk, LABek eta Euskalgintzaren Kontseiluak eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko antolatuko duten kanpainaren aurkezpenean.

Alda, candidatura por un alquiler justo y social en Iparralde

Ainize Butron y Malika Peyraut (copresidenta y coordinadora, respectivamente) hacen balance de los dos primeros años de actividad de la asociación Alda

“Azken urtean Aldak 357 familia edo pertsonari eman die laguntza, eta kasu ugaritan beren arazoa konpondu die. Honek esan nahi du gero eta borroka gehiago irabazten dugula”.

en el sofá de un conocido se instalen en una vivienda social. Son solo algunos ejemplos. Alda ha alcanzado ya los 400 miembros.

Malika Peyraut: En dos años se han conseguido importantes victorias políticas. Por ejemplo, la norma de compensación, iniciada por **Alda** para proteger a las personas alquiladas todo el año de la vampirización por parte de Airbnb. En 2022 recalificamos directamente unos 60 alquileres ilegales, permitiendo así estar en casa en verano a otras tantas familias o personas. Nuestro objetivo era erradicar totalmente y en 3 años esta práctica masiva que precariza aún más a las personas inquilinas. Puede que esta nueva victoria política acelere las cosas.

Ahí está también el impacto de la manifestación del 20 de noviembre de 2021, que reunió a 8.000 personas en defensa del derecho a la vida y al alojamiento en el país.

La construcción de un contrapoder popular que avanza mes a mes también supone un avance. Nuestra revista **Alda**, que pretende ser la voz popular y de los barrios, difunde 35.000 ejemplares.



> Landeia

Alda, la asociación que trabaja reivindicaciones sociales en los barrios y las localidades de Iparralde, ha cumplido dos años y presentó su balance en la asamblea general que celebró el pasado 8 de octubre en Baiona. Ainize Butron y Malika Peyraut (copresidenta y coordinadora de Alda, respectivamente), repasan en una entrevista concedida a la revista **Enbata** alguna de las claves de lo conseguido en este tiempo y subrayan la importancia de las elecciones para representar a las personas que viven en alquiler, un recurso existente en el Estado francés que da cabida a las reivindicaciones sobre vivienda.

Landeia ofrece aquí un resumen:

¿Qué balance realiza Alda de sus dos primeros años de actividad?

Ainize Butron: el balance va más allá de lo previsible en tan poco tiempo. Sólo en este último año, de septiembre de 2021 a septiembre de 2022, **Alda** ha ayudado a 357 familias o personas y ha resuelto en múltiples ocasiones su problema. Eso significa que cada vez ganamos más batallas. A veces importantes, que cambian la vida de las personas implicadas. Como cuando conseguimos anular el rechazo a la naturalización de los inmigrantes que han hecho aquí toda su vida. O cuando se gana un recurso para que personas que viven en su coche, en una caseta de la huerta o

¿Cómo se explican estos sorprendentes resultados?

Ainize Butron: Había una verdadera necesidad de una iniciativa como **Alda**. Cuando vemos la situación, a veces desesperada, de algunas personas que acuden a **Alda**, te preguntas cómo hacían antes de que existiéramos.

Estos resultados deben mucho al método utilizado en **Alda** y experimentado en otras estructuras que actúan en torno a la Fundación Manu Robles-Arangiz: denunciar los problemas y hacer un diagnóstico detallado, pero también proponer soluciones alcanzables. Ser radicales y pragmáticos a la vez. Ir a la gente, sin esperar a que venga a nosotras, es fundamental, especialmente si queremos trabajar con las clases populares. Hay que escuchar y anticipar.

Y en ese método global está la organización, que ocupa un lugar importante. La gente que viene a **Alda** se estructura en comités de población, usuarios colectivos, comités diferentes (alojamiento, batallas diarias, legal, comunicación, logística, etc.). Esto hace que la gente se forme, y sea, cada vez más, responsable y activa.

Malika Peyraut: No podemos limitarnos a ser una ventanilla

“Alda auzo herrikoietako jendea defenditzeko arma da, aurre egiteko enpresa handiei, banku eta aseguru-etxeei, Administrazioei eta oro har pertsonen ahuleziaz baliatzen diren erakundeei”.

de servicio. Hay que impulsar la acción colectiva. Por otro lado, estamos desarrollando alianzas. Por ejemplo, con la federación Derecho a la Vivienda y la fundación Abbé Pierre, a nivel estatal y local. Esto nos permite presentar enmiendas legales, por ejemplo, para modificar la Ley Financiera de 2022 y mejorar la fiscalidad de los alquileres de larga duración.

¿Qué se pone en juego en estas elecciones HLM (viviendas de alquiler moderado)?

Ainize Butron: Para **Alda** es importante adquirir la condición de asociación representativa de las personas inquilinas. La práctica nos lleva cada vez más, de facto, a convertirnos en auténticos sindicatos de inquilinos del parque social y privado. Pero también un sindicato de personas usuarias. **Alda** es una herramienta de defensa para la ciudadanía de los barrios populares, frente a grandes empresas, algunos bancos o aseguradoras,

la Administración y muchas otras instituciones que abusan de la debilidad de las personas.

Malika Peyraut: Hemos realizado un programa real, fruto de diferentes encuestas y consultas a las personas inquilinas de HLM en Iparralde, recopilando testimonios. Lo hemos trabajado colectivamente, con la ayuda de expertas en vivienda social. Hemos elaborado un programa que vamos a defender en estas elecciones y en los próximos cuatro años.

¿Cómo afronta Alda estas elecciones?

Ainize Butron: Será una campaña original de movilización, como las que **Alda** realiza en el día a día.

Alda se distingue de otros contendientes por tratarse de una asociación vasca que tiene la potestad de presentar listas a las elecciones HLM. Somos, por tanto, una estructura propia de Euskal Herria que tiene como forma de actividad la organización colectiva y la movilización ciudadana. Eso es lo que nos diferencia de otras asociaciones a favor de los inquilinos.

Creemos que todas las personas abertzales apoyarán esta campaña porque los resultados se leerán también desde la perspectiva de la influencia del movimiento abertzale en Iparralde. ■

Ezin gara zerbitzu-leihatila izatera mugatu.
Ekintza kolektiboa bultzatu behar da.



Enplegua krisi ekosozialaren aurrean

Ainhara Plazaolak inor bide bazterrean ez uzteko politika publikoak eskatu ditu trantsizio ekologikoaren aurrean



Ainhara Plazaola

> Landeia

Irailaren 30etik urriaren 2ra Portugaleten ospatutako Ekotopaketetan parte hartu du ELAk. Ingurumen arloko Ainhara Plazaola “Krisi ekosozialaren aurrean nola antolatu lana eta enplegua” mahainguruan, etorkizunean zein enplegu izango ditugun eta langileok trantsizio ekosozialean izan beharreko paperaz aritu zen.

Trantsizio ekosozialerako ezinbestekoa izango da energia eta lehengaien kontsumoa asko

“La transición ecosocial exige un cambio radical en el modelo de producción y consumo y va a tener un gran impacto en otros ámbitos, como el empleo”.

murriztea. Ekoizpen eta kontsumo eredua errotik aldatzea suposatuko du horrek, eta beste hainbat esparrutan ere eragin handia izango du. Baita enpleguaren arloan ere.

| Krisi ekosozialaren testuinguruan, energia eta material urriko etorkizun batean, zein sektoretan izango dira murrizketa handienak, edo zeintzuk desagertuko lirarteke?

Ainhara Plazaola: Aurreikusitako dezakegu enplegu galera handia etorriko dela, baina bidezko trantsizioa ekosozial bat eginda, enplegu galerari beste enplegu batzuen sorrerarekin erantzun ahal zaio.

Trantsizio hau bidezkoa izateko, enplegu galera aurreikusitako erantzun egokia eman beharko zaio noski. Desagertu edo murriztu beharreko sektore eta enpleguak desiragarriak ez diren enpleguak izango dira.

Etikoki onargarriak ez direnak badaude, adibidez armagintza edo oinarritzko beharrekin, etxebizitzarekin edo elikagaiarekin, espekulatzen dutenak.

Ingurumen kalte handiak sortzen dituztenak edota energia kontsumo handikoak direnak ezingo dute gaur bezala aurrera egin.

Eta berriztagarriak ez diren materialen kontsumo handiko sektoreek ere ez dute etorkizunik. Azken hauetan eskasiaren zantzuak ikusten hasiak gara ia.

Hego Euskal Herrian pisu handia duten sektoreek eragin handia jasango dute, esaterako altzairugintzak, autogintzak, azpiegitura handiak eraikitzen dituztenak, energia fosila ekoizten dutenak, material ez berriztagarriak eraldatzen dituztenak...

| Eta zeintzuk dira orduan etorkizuneko enpleguak?

Onargarriak eta beharrezkoak direnak. Energia eta material kontsumo baxuko jarduerak izango dira etorkizunekoak, bai ala bai, ez baita baliabide nahikorik egongo gaur egungo kontsumo maila mantentzeko.

Sektore asko daude energia eta baliabide xahuketarekin zerikusirik ez dutenak, eta hain justu beharrezkoak direnak bizitza sostengatzeko.

Existitzen dira, baina askoz gehiago garatu behar dira. Adibidez, pertsonen oinarritzko beharrak asetuko dituzten enpleguak, elikadura, energia, eta etxebizitza bezalako beharrei erantzuten dienak.

Bizitza sostengatzen dutenak, zaintza lanak, osasungintzakoak, hezkuntzakoak, kulturgintzakoak, edo ongizatea bermatzen duten lanak.

Berdintasuna, parte-hartzea, elkartasuna, ondasun komunak eta ekologiari lotutako eskubide unibertsal eraginkorrak aldarrikatzen dituztenak.



Natura babesteko eta giza jarduerak eragindako inpaktuak “konpontzeko” lanak.

Gauzak eta objektuak iraun dezaten diseinatuko dituztenak eta konponduko dituztenak.

Asko dira beharrezkoak diren lanak.

Zein sektore indartu behar dira orduan?

Zaintza sektorea, zerbitzu publikoak, agroekologia, basogintza iraunkorra, bidezko energia berriztagarriak, garraio publiko iraunkorra, ekodiseinua, ekonomia sozial eraldatzailea, hondakinen kudeaketa iraunkorra eta beste hainbat. Enplegu galera egongo da, baina badago enplegua non sortu.

Zein da administrazio publikoen papera trantsizio honetan?

Trantsizio honetan beharrezko politika publikoak garatzea, eta politika publikoen bitartez prozesu honetarako marko juridiko egokia ezartzea.

Sektore iraunkorren aldeko apustu ekonomiko eta politikoa beharrezkoa da. Batetik, ezinbestekoa izango da beharrezko baliabide publikoak bideratzea berregituratze hau finantzatzeko, sektore estrategikoen garapenerako eta behar ditugun enpleguak sortzeko. Bestetik, babes soziala bermatzea. Enplegu galerak izango dira iraunkorrak ez diren sektoreetan, eta pertsona hauen oinarrizko beharrei erantzutea bermatu behar da, eta beste hainbat laguntza ere bai, esaterako, sektore

“Por un lado, es imprescindible destinar los recursos públicos necesarios para financiar la transición, para el desarrollo de sectores estratégicos y para generar los empleos que necesitamos. Por otro, debe garantizarse la protección social de las personas afectadas”.

iraunkorretarantz bideratzeko ikasketa etengabeak.

Zeintzuk dira lehentasunak politika publikoak aldarrikatzerakoan?

Funts publikoekin finantzatu behar da trantsizioaren zati handi bat eta fiskaltasunaren erreforma beharrezkoa da diru sarrerak areagotzeko.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka, sozietateen gaineko zerga eta errenta altu eta kapitalen gaineko zergak igotzea ezinbestekoa da.

Enpleguaren arloan, lana banatzeko jardunaldia murriztea soldata murrizketarik gabe, lana eta bizitzaren arteko kontziliazio politika sendoa, eta soldata arrakalarekin bukatzea ahalbideratu behar da.

Gizarte babesa indartzeko finantziario egokia eman eta zerbitzu publikoak gehiago garatu behar dira. Sektore estrategikoen publikazioa ezinbestekoa izango da, energia sektorea esaterako.

Energia merkatu-logika guztietatik kanpo geratu behar da, eskuragarria den eta berriztagarrietan oinarritutako den sistema garatu behar da kontrol publikoekin.

Produktu energetikoen prezioak kontrolatu eta mugak jarri behar zaizkie.

Eta beste neurri asko ere aldarrikatu behar dira klima aldaketaren aurkako borrokan eta ekonomiaren birkokapen prozesuaren inguruan. ■

TRANSICIÓN ECOSOCIAL Y PROTAGONISMO DE LA CLASE TRABAJADORA

El capitalismo no nos va a regalar una transición ecosocial justa; tendremos que conseguirla peleando, porque los trabajadores y trabajadoras debemos ser protagonistas en la transición y en el nuevo modelo de futuro, por supuesto. A decir verdad, no vamos a empezar de cero, porque ya somos protagonistas de esta lucha. El grado de confrontación que estamos teniendo en los últimos años es muy alto, todo un ejemplo para otros países.

Cabe destacar, también, que los conflictos más largos y duros de estos últimos años están relacionados con el cuidado y los sectores feminizados. En ELA los conocemos bien.

El papel del sindicato en esta transición será la organización, el empoderamiento y la lucha de la clase trabajadora. Nuestro sitio está en la calle. Si no acentuamos la confrontación, el capital hará la transición a su medida y no será la transición ecosocial justa que necesita la clase trabajadora y la mayoría de la sociedad. ■



Covid persistente: realidad y alternativas

> **David Pena**

Los últimos años han estado, sin duda, marcados por la pandemia por Coronavirus, enfermedad que ha alterado nuestra forma de vivir y trabajar. Desgraciadamente, muchas personas han desarrollado secuelas por Covid o Covid persistente, siendo una cuestión que no sólo tiene implicaciones médicas sino también laborales.

Bidelagun Fundazioa, con la colaboración de ELA, UNED de Bergara y Manu Robles Arangiz Fundazioa, organizó el 30 de septiembre en Arrupe-etxea de Bilbao unas jornadas bajo el título "Covid persistente y mundo del trabajo".

Covid iraunkorra emakumeengan sarriagoa denez, izan ote litezke lanerako ezintasuna eragiten duten patologiak sexuagatiko zeharkako diskriminazio zergati bat?

Dichas jornadas tenían como objetivo aunar tanto la perspectiva médica como la jurídica, analizar la situación y realizar una reflexión jurídica sobre las diferentes alternativas de los trabajadores/as que sufren la enfermedad por haber sido contagiados en sus puestos de trabajo.

Una enfermedad por conocer

Felix Zubia, jefe de la UCI del Hospital de Donostia, expuso el conocimiento médico actual sobre la enfermedad, trasladando, asimismo, los problemas con los que se encuentran los profesionales sanitarios para el diagnóstico y el tratamiento en cuanto que el conocimiento científico de la enfermedad es todavía limitado, siendo necesaria la investigación en la materia.

La presidenta de la *Asociación Long Covid de Euskal Herria*, Isabelle Delgado, relató de primera mano las secuelas que sufren las personas afectadas, así como las trabas que se encuentran en su día a día para el reconocimiento de su enfermedad.

Impacto de género

Entrando ya en la parte más jurídica de la jornada, Izaro Mujika, Técnica del área de salud laboral de ELA, expuso las diferentes normativas sobre prevención de riesgos que fueron publicándose durante el estado de alarma, así como su incumplimiento por muchas empresas y también Administraciones Públicas.

Mujika recordó las demandas y medidas cautelares que se tuvieron que plantear desde ELA en sectores como residencias de tercera edad y ambulancias en cuanto que los trabajadores/as prestaban servicios sin equipos de protección.

Recordó, asimismo, que la mayoría de sectores denominados "esenciales" se trataban de sectores en los que la mayoría del personal son mujeres. En este sentido, y desde un punto de vista médico, también se expuso durante la jornada que las mujeres tienen una mayor prevalencia de la enfermedad.



Félix Zubia, jefe de la UCI del Hospital de Donostia.

Las vías jurídicas

Ainhoa Ordorika, abogada de Bidelagun Fundazioa, quiso trasladar una visión práctica, trasladando las dificultades que encuentran los trabajadores y trabajadoras para reclamar la contingencia profesional de sus patologías y de las secuelas por Covid. Ainhoa planteó la importancia de que se reconozca la contingencia profesional de las bajas por Covid para poder reclamar las prestaciones que se deriven y, en su caso, el recargo de prestaciones e indemnizaciones por daños y perjuicios en caso de incumplimiento de medidas preventivas por las empresas y/o administraciones públicas.

Por último, el debate jurídico lo cerró Cristóbal Molina, Catedrático del Derecho del Trabajo en la Universidad de Jaén. Molina recordó que el Real Decreto-ley 6/2020 de 10 de marzo reconoció una prestación de IT por Covid que se asimilaba en los efectos económicos a la prestación de accidente de trabajo enfermedad profesional 75% B.R. desde el primer día, pero no así a todos los efectos.

Sin embargo, las IT que tengan su causa en el síndrome post COVID-19 están sujetos a la normativa laboral general (no se asimilan

Langileak arazoak izaten ari dira beren patologien eta Covid bidezko ondorioen gertakari profesionala eskatzeko.

a efectos económicos), puesto que no responderían al objetivo asignado por el legislador a esta medida extraordinaria, que es proteger la salud pública evitando, exclusivamente, la propagación de la enfermedad Covid-19.

Sin duda, el criterio del INSS, según Molina, es restrictivo y muy discutible. Primero, porque al tratarse de una cuestión de carácter sanitario, corresponde su valoración a los facultativos médicos competentes y no al INSS y, segundo, porque es igualmente dudoso que, de existir una continuidad de afectación entre el contagio y la persistencia de la enfermedad, no se mantenga la calificación, eso sí, a los efectos de las prestaciones básicas de IT.

Sin duda, será muy conflictivo y se plantearán acciones judiciales en caso de que la práctica de negar esa asimilación se consolide.

En relación a la protección frente al despido del trabajador o

trabajadora afectado de limitaciones por secuelas del Covid, Cristóbal Molina planteó una cuestión muy novedosa en relación a los derechos fundamentales, y el derecho a la salud. El nuevo art. 2 de la Ley 15/2022 delimita la enfermedad y la condición de salud como causa discriminatoria y, por tanto, abre la vía para que se declaren nulos y no improcedentes los despidos en los que la causa del despido sea la condición de salud del trabajador o trabajadora.

¿Discriminación de género?

Por último, Cristóbal Molina también planteó un nuevo reto jurídico para el futuro: siendo la tasa de prevalencia del Covid persistente mayor en mujeres, ¿la diferencia biológica en la prevalencia para sufrir patologías incapacitantes para el trabajo puede ser una causa de discriminación indirecta por razón de sexo? El antes mencionado art. 2 de la Ley 15/2022, integral para la igualdad de trato y la no discriminación ha ampliado las causas de eventual discriminación (art. 14 CE) atendiendo a la evolución sociocultural y científica las causas. Pues bien, de forma específica se incluye la referencia, como causas discriminatorias potenciales la: "... condición de salud, estado serológico y/o predisposición genética a sufrir patologías y trastornos...".

En consecuencia, queda claro que una insuficiente o inadecuada respuesta jurídica a estas patologías emergentes incapacitantes desde la rama de pensiones de incapacidad permanente causaría una situación de desventaja mayor al sexo que más predisposición genética tiene a sufrir esta patología de COVID19 persistente, las mujeres, lo que podría derivar en una discriminación indirecta por razón de sexo.

Los Tribunales son los que tendrán que resolver estas cuestiones, pero el debate jurídico está servido. ■



ELAk Portugalgo CGTP-INen bisita jaso du

ELAk CPTP-IN Portugalgo sindikatu nagusiaren ordezkaritza baten bisita jaso du urriaren 4tik 6ra. Topaketak, bi organizazioen artean dagoen harremana sendotzeaz gain, sindikalismoaren erronka komunei buruzko ikuspuntuak trukatzea ahalbidetu du. CGTP-INren ordezkaritza Isabel Camarinha idazkari nagusiak eta João Barreiros Portugalgo zentraleko Nazioarteko Harremanen arduradunak osatu dute. Egun honetako bisitaldiari esker, Euskal Herriko eta Portugalgo egoera ekonomiko, sozial, sindikal, politiko eta negoziazio kolektiboari buruz hitz egin ahal izan dugu.



“Lanzamiento de fregona” frente al Gobierno Vasco contra la brecha salarial

Las trabajadoras que limpian el edificio del Gobierno Vasco están en huelga desde el 26 de septiembre para mejorar sus condiciones laborales. Se trata de un sector feminizado, subcontratado y con el sueldo congelado desde hace 13 años. El 11 de octubre realizaron un acto de protesta en el que, disfrazadas de deportistas, practicaron el “lanzamiento de fregona”.

Beti On telelaguntza-zerbitzuko langileek greban jarraituko dute urrian eta azaroan

ELAk eta LABek beste bi hilabeteko greba deitu dute Beti On telelaguntza-zerbitzu publikoan urrirako eta azarorako. Langileek salatu dute ABEEak negoziatzeko borondaterik ez duenez, gatazka hori luzatzen ari dela. Beti Onek 65.000 erabiltzailerri eskaintzen die laguntza.

Langileak animatuta eta lan-baldintza duinak lortzeko borrokan jarraitzeko gogoz daude, eta mobilizazioen egutegi bat prestatu dute bi hilabete hauetan, euren borroka are ikusgarriagoa izan dadin kaleetan.



Tras 27 días de huelga, buen acuerdo en Burdinberri

Tras 27 jornadas de huelga, ELA ha llegado a un acuerdo sobre el pacto de empresa que recoge subidas salariales del IPC para los años 2022, 2023, 2024, 2025, así como 250 euros añadidos a la firma a cada trabajador y trabajadora, cláusula de inaplicación, reducción de jornada para 2023 hasta las 1.727 horas, contrato de relevo y que el Comité y los trabajadores y trabajadoras puedan revisar anualmente las categorías.

El TSJN declara ilegal el cierre de Cirmauto y fija 2,2 millones como indemnización para la plantilla despedida

La dirección de Cirmauto comunicó en octubre de 2021 su intención de despedir a las 28 personas de la plantilla y cerrar la empresa. Desde el primer momento, ELA se opuso al expediente de regulación de empleo (ERE) y peleó por el mantenimiento de los puestos de trabajo. Así mismo, exigió al Gobierno de Navarra que se implicase para evitar la destrucción de empleo y el cierre de una empresa viable.

El ERE finalizó sin acuerdo y la lucha continuó en los juzgados. Ahora, el Tribunal Superior de Justicia de Navarra (TSJN) ha dado la razón a ELA y ha declarado nulo el ERE de Cirmauto. Como la empresa ya está cerrada, es imposible la readmisión de la plantilla, pero la empresa deberá abonar más de 2,2 millones de euros a una plantilla de 28 personas.

El sindicato felicita a la plantilla de Cirmauto por la lucha mantenida al tiempo que denuncia la inacción del Gobierno de Navarra, que favoreció los intereses de la empresa.



ELA convoca una jornada de huelga en la Hostelería de Bizkaia el 28 de octubre

El 28 de octubre de 2022 las trabajadoras y trabajadores de la Hostelería de Bizkaia llevarán a cabo una jornada de huelga para exigir la garantía de IPC en el próximo convenio, que ahora se está negociando. Asimismo, exigen otras mejoras como control y regulación efectivas de las jornadas de trabajo, reducción de horas anuales, cobertura de baja por incapacidad temporal y reducción de ratios de habitaciones para las camareras de piso.

Durante la pandemia, este sector ha sufrido ERTes y pérdida salariales superiores al 30%. Se trata de uno de los colectivos más precarizados, con contratos parciales, sueldos miserables, cargas de trabajo inasumibles, etc. Todo ello mientras el sector de la hostelería se ha activado con cifras anteriores a la pandemia. Las plazas de hotel han aumentado y la ocupación hotelera ha estado desde el verano entre el 85% y el 100%. En los bares y restaurantes, el incremento de los precios es evidente.

La huelga afectará a 25.000 trabajadores y trabajadoras.

ELAk mobilizazioak areagotuko ditu Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako zahar-etxeetan

Bizkaiko, Arabako eta Arabako zahar-etxeetan langileek greba eta mobilizazioekin jarraitzen dute, lan-baldintzen eta asistentziaren kalitatearen alde.

Mobilizazioetan, sektoreko langileek herritarrei azaldu ahal izan diete lantokietan egunero bizi duten egoeraren larritasuna.

Langilerik ezari, lehenengo egunetik langileak ez ordezkatzeari, enplegua ez finkatzeari edo lanaldi partzialak handitzeari erosteko ahalmena galtzea eta egoiliarren arreta duintzeko ratorik ez izatea gehitzen zaizkio.



ELA aboga por seguir luchando para conseguir un convenio con contenidos en el Metal de Bizkaia

Los delegados y delegadas de ELA del Metal de Bizkaia han reafirmado en diferentes asambleas su voluntad por continuar con el camino que se inició con la negociación del convenio 2022. Por ello, ELA convocará huelga los días 27 y 28 octubre y 2 de noviembre. De no producirse un acuerdo con la patronal, ELA apuesta por la convocatoria de una huelga indefinida en el Metal de Bizkaia. Asimismo, ELA se reafirma en la voluntad de trabajar con quienes quieran asumir compromisos y cumplirlos.



Miren Zubizarreta
ELA Hezkuntzaren arduraduna

Euskal langileriarentzako Hezkuntza Legea borrokatzera goaz

Eusko Jaurlaritzak EAerako Hezkuntza Lege aurreproiektua plazaratu zuen irailaren 14an. Aurreproiektuari eragile eta hiritarrek aurkeztutako alegazioak behin aztertuta Gobernu Kontseiluak Legebiltzarrera bidaliko duen behin betiko Lege Aurreproiektua onartuko du. Horretarako abendua joko duela adierazi du Hezkuntza Sailburuak. Legebiltzarreko eztabaida urtarrila edo otsailetik aurrera kokatuko da, beraz.

ELAk hezkuntza sistemaren eraldaketa nahi du. Izan ere, egun indarrean den hezkuntza ereduak aje garrantzitsuak baititu:

Eskuduntza errealik ezak hezkuntza eredu propio baten garapena oztopatzen du, besteak beste Euskal Herria erreferentziatzen izango duen kurrikulum propioa izateko, hezkuntzan behar dugun langile kopurua erabakitzeke edo enpresen interesen ginetik ikasleen gaitasun kritikoa lantzea lehenetsiko duten hezkuntza prozesuak ezartzeko.

“La inversión educativa en la CAPV es del 3,86% del PIB, frente al 4,7% de la media europea. La UNESCO recomienda el 6%”.

Gabeziak betetako legea

Euskalduntzea ez dago bermatua.

Azterketek erakusten dute une kritikoan gaudela. D ereduak ez du erabat bermatzen ikasleen ezagutza; A eta B ereduetan, berriz, ezinezkoa da. Ez dago gainera estrategia eraginkorrik ezagutza formalaz haratago euskararekiko lotura emozionalak lantzeko edo ikasgeletatik kanpoko jardueretan euskararen lanketa bermatzeko.

Segregazio egoera larria da.

Arazoi desberdinek sortzen dute segregazioa, baina egungo sare banaketa eta itunpekoan ikasle zaurgarriak salbuesenez hartzea erdiguneko arrazoia da.

Inbertsio nahikorik gabeko hezkuntza sistema daukagu.

UNESCOren gomendioa BPGren %6koa izatea eta Europar batzbestekoa BPGren %4,7koa den bitartean, EAeko hezkuntza inbertsioa %3,86koa da.

Erabat zentralizatutako hezkuntza publikoa daukagu.

Jaurlaritzaren goitik beherako erabakietan oinarritzen den eredu bultzatzen da, eskolen autonomia eta eskola komunitatearen parte hartzean oinarritutako eskola eredu baten kaltetan.

Lan baldintza desagokiak dira nagusi.

Besteak beste, azpikontratazioaren hedapena, hezkuntza publikoan dagoen %40tik gorako behin behinekotasuna, itunpeko hezkuntzako langileen lanpostu galera arriskua, hezkuntza publikoko negoziazio kolektibo errealik eza edo Jaurlaritzaren aldetik itundutako eskoletako langileei lan baldintzak azpikontratazio logikaren arabera ulertzea aipa ditzakegu.

ELAk lan baldintza egokiak izango dituen Euskal Eskola Publiko eta Burujabe gisa definitu duen Hezkuntza sistema du helburu. Badakigu egun batetik bestera

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Iván Giménez.

Koordinatzailea: Gorka Quevedo.

Lan taldea: Nerea Ispizua, Nagore Uriarte, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro eta Ainhara Plazaola

Argitarazle: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

Lege gordailua: BI-195-1998

www.ela.eus · landeia@ela.eus

ezin izango dela guztia aldatu, baina sindikatuaren iritziz oraingo Hezkuntza Lege batek elementu okerrenak zuzendu eta aldaketa sakonago bat egiteko baldintzak sortu beharko lituzke.

Ez Lege Aurreproiektu hau, ez eta bere erditze prozesua ere ez doaz norabide horretan ordea. Legeak ez dakar eduki edo neurri zehatzik aje horiei erantzun eta aldaketa gauzatzeko.

Benetako euskalduntzearen alde

Horrela, euskararen inguruko aurreikuspenei erreparatzen badiegu, esaterako, oso argi ikusten da hau. Legeak jasotzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean ikasleek B2 gaitasuna izan beharko dutela. Baina hori lortzeko erabiliko den hizkuntz eredua zein izango den ez zehazteaz gain, hiru hizkuntza irakas-hizkuntza izateko aukera jasotzen du. Gainera, maila hori lortzen ez duten eskolen kasurako abian jarriko diren neurri zuzentzaile edo baliabide gehiagarrien inguruko aipamenik ere ez dago.

Eskolen doakotasunari dagokionez, doakotasun hau bermatzeko kuoten desagerpen erreala eman beharko litzake. Legeak ez du, ordea, hau lortzeko hartuko diren neurri zehatzik jasotzen.

Bestalde, A ereduarekin batera, kuotak jasotzea segregaziorako elementu nagusi izanik, ez dugu ikusten segregazioarekin amaitzeko baldintzak emango direnik.

ELAk Hezkuntza Lege honen onarpen prozesuan alderdi politiko zein gobernuen posizio eta botoak baldintzatu nahi ditu, horretarako beharrezkoa den mobilizazioa

“Queremos transformar el sistema educativo junto a las personas del sector, especialmente las que sufren en mayor medida la precariedad”.

eta greba dinamika iraunkor bat bultzatuz. Saiakera horretan, hezkuntzako gainerako sindikatuekin harremanetan dago.

Ez da komeni, ordea, aurreproiektu hau aurrez EAJ, PSE, EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos alderdiek adostutako Hezkuntza Hitzarmenaren semea eta islada dela ahaztea.

Ezta martxoan erditu zuten Hezkuntza Hitzarmen honen bueltan sindikatuok martxoak 25erako deitua genuen grebarekin gertatua ahaztea ere.

ELA, LAB, Steilas eta CCOO sindikatuok deitutako greba hura baino egun batzuk lehenago, aipatutako lau alderdi politikoek etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarrien inguruko akordioa adostu zuten. Sindikatuon eskaerak ez zituen jasotzen Hezkuntza Hitzarmen deitua izan den dokumentu hark.

Une hartan, EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemosen jarrerak eragin zuzena izan zuen LAB eta CCOOengan eta grebarekin aurrera ez jarraitzea erabaki zuten. Erabat instrumentalizatuak sentitu ginen, Hezkuntza Hitzarmena legitimatzeko erabili gintuzten argi eta garbi. Steilas sindikatuak, berriz, ELArekin greba planteamendu bateratu bat adostu

ordez, nahiago izan zuen bere kabuz oso indar gutxi izan zuen lanuzte bat deitzen.

Honen guztiaren ondorio nagusia izan zen Gobernuaren indartuta atera zela egungo sistemaren ajeak betikotu baino egingo ez dituen Hezkuntza Lege baten onarpen prozesuan.

Artikulu hau idazten ari naizen unean, ELA gainerako sindikatuarekin hitz egiten ari da, eta seguraski, ELAren erabat gustoko ez diren ezaugarri batzuekin baina Hezkuntza Legearen inguruko aldarrikapen batzuen bueltan mobilizazio zein greba abian jartzeko aukerak egongo dira.

Sistema eraldatu

Ibilbide honetan, ELAk ezin du bermatu Gobernuaren zein alderdi politikoen jarrera zein izango den. Ezta sindikatu batzuk alderdi politiko batzuen erabakien transmisio eta legitimazio tresna izateko hautua egingo ez dutenik ere; edo beste batzuk beraien interes korporatiboak lehenetsiko dituztenik Legea baldintzatzeko helburuarekiko.

ELAren ardura nagusia, eszenatokia edozein izanda ere, hezkuntza sistemako langilego osoarengana iritsi, hau antolatu eta Lege hau baldintzatzeko beharrezko mobilizazio eta grebekin aurrera jarraitzeko baldintzak lantzea izango da. Eta erronka hori gogoz hartuko du.

Izan ere, ELAk Hezkuntza sistema eraldatu nahi du, eta argi du eraldaketa hau hezkuntzako langile guztiekin gauzatu nahi duela, bereziki hezkuntza publikoko langile prekarioenekin eta itunpekoan azpikontrata merke trataera izatearen ondorioak lan baldintzetan pairatzen dituztenekin! ■



Bananeroen borroka

ELA eta MRA Fundazioaren ordezkaritza Hondurasen izan da urriaren 11tik 14era bertako Fotssieh, ekonomia informaleko sindikatuko kideekin

> Xabier irastorza

Hondurasen lur hartu eta berehala azaldu zidaten Idalmi, Anibal eta Marcelak: "AEBek goitik behera kontrolaturiko herrialdea da gurea. Dena esportaziora bideratua dago, elikadura, ehungintza eta meatzaritzako transnazional erraldoien neurria egindako industria, lan eta zerga erregulazioa dugu, erabateko prekarietatean diharduen esku lan merkea. Eta

horretarako iparamerikarrek beraien mendeko gobernu titereak ezartzen dituzte, erositako agintariak, eta narkotrafikanke eta maren esku uzten dute lurraldearen kontrola. Administrazio eta polizia bera ere horren mendeko dago, ustelkeriak jota".

Hondurasi buruz ari dira, baina aberastasun natural, lehengai ugari eta erregai iturriak dituen

"Tienen claro que para impedir el control del poder sobre el sindicato es imprescindible su autonomía política y económica".

beste herrialde askori buruz ere ari zitezkeen.

"Banana errepublika" deitu zion O. Henry idazleak. XX. mende hasieratik aurrera. Kolonialismo eta inperialismo kapitalista zuri eta patriarkalak bere egin duen kontzeptu eta praktika.

Egitura honen menpe, zerbitzura eta kontura bizi da 14 familiek osatzen duten Hondurasko oligarkia. Egitura ekonomiko kolonial honetako enpresaburuek "15-35 urte bitarteko eskulana besterik ez dute nahi", dio Anibalek, Fotssieh sindikatuko Idazkari Nagusiak. 35 urtetik aurrera "ez zara desiragarria enpresarientzat". Horrek azaltzen du lan egiteko moduan dauden herritarren hamarretik zortzik ekonomia informalerako jo behar izatea bizirauteko. Herrialdeko jabetza eta aberastasunaren %90 atzerriko transnazionalen eta bertako oligarkiaren esku dagoen bitartean, herritarren gehiengoa pobrezian, enplegu oso prekarioekin edo gutxieneko diru sarrerak lortzeko bere kabuz aritzera dago kondenatua, gobernuak erregularizatu nahi ez dituen jarduerak ezberdinetan.

Langileen %80 ekonomia informalean

Testuinguru honetan sortu zen 2001ean Fotssieh, Hondurasko ekonomia sozial eta informaleko langileen sindikatua. Denetarik egiten dute: nekazal produktuak, ogia, gozoak, jaki prestatuak, errepide ertzeko jantokiak, zapatak, jantziak, bitxi eta apaingarriak, poltsak, informatika zerbitzuak, argazki zerbitzuak, hezkuntza, erizaintza, kale salmenta... %80 emakumeak. Ia denek etxeko lanak, zaintza eta erreproduktzio lanekin bateratzen dituzte, gutxieneko diru sarrerak bermatzeko jarduerak

hauek. Nimiak esaterako, 67 urterekin, Down sindromea duen bere alaba ere berarekin jarri du lanean. Honi gehitzen zaio, emakume hauek asko bortxatu eta erail egiten dituztela. Bai kalean, baita etxean ere.

2014 geroztik, gu ere, ELA, gure esku dagoen bultzadaxoa ematen saiatzen gara. "Garapena eta Elkartasuna Euskal Herrian" funtsa osatzeko gure afiliazio kuotetatik bideratzen den %0,7 horretatik finantzatzen ditugu, Quebeceko CSN sindikatua eta Alternatives erakundearekin batera, errealitate honetan bizi diren Hondurasko emakume eta langile hauei laguntzeko programak.

Oraingoan ordea, laguntza gehigarria eskatu digute. Sindikatua antolatzen eta zabaltzen ari diren heinean, ELAK sindikalismoa ulertu eta garatzeko duen modua eta antolakuntza eta ekintza sindikala gauzatzeko moduak beraiei sindikatuko zuzendaritza kide eta antolatzailleekin lantzea, alegia. 2018an gure kongresuan izan ziren Marcela, CSN sindikatuko eta Alternativeseko kidea, eta Idalmi, Fotssieho koordinatzaile eta lider aparta, eta konbentziturik daude ELAren eredu eta praktika sindikala oso baliagarri izan daitekeela beraiantzat.

Sindikatuaren independentziaren garrantzia

Horrela bildu gara Fotssieho federatuta dauden toki eta errealitate ezberdinetako sindikatu eta komunitateetako antolatzailleekin.

Azalduriko ustelkeria testuinguruan, sindikatuaren autonomia politiko eta ekonomikoak garrantzia berezia hartzen du. Urteetan, borrokatzaileak izan diren sindikatu eta mugimendu sozialetako kideak botere egiturek erosi eta indargabetu izan dituzte. Eta, azken urteetan, ezkerreko alderdi politikoek beraiei egiturak hustu dituzte.

2009ko estatu kolpearen ondoren, sindikatu eta mugimendu sozialek bultzatuta indartzen joan den



Tegucigalpako trebakuntza saioa Fotssieho kideekin

“Los EE.UU. controlan totalmente el país. Toda la economía formal está dirigida a la exportación”.

ezkerreko alderdien sorrerak eta aliantzek aldaketa historikoa ekarri du. 2021 hauteskundeetatik, lehen aldiz, ezkerreko gobernu bat da nagusi.

Hasierako ilusioa, ordea, itzaltzen hasi da. Mesfidati eta kritiko dira gobernuarekiko Fotssieho arduradun gehienak. "Botere ekonomikoarekiko adeitsuegia izaten ari da gobernu, politikak apenas aldatu dituzte eta sindikatuen eta mugimendu sozialen aurkako hainbat neurri hartzen ari dira" dio urterik gogorrenetan Hondurasko sindikatu borrokalariena izan den CUTHeko Idazkari Nagusi izan den Baquedanok. Iritzi berekoa da Nora, Tegucigalpako 1.200dik gora kale saltzaile biltzen dituen sindikatuko burua: "Ilusio handia piztu zigun gobernu berriak, baina gure egoera hobera aldatuko duten neurri zehatzak hartzen ez badituzue kalean izango gaituzue" esan berri dio Xiomara Castro lehendakariari, berarekin izandako bilera batean.

Horrelako jokaerekin ezkerre banatzen aritzeaz salatu omen zuen Lehendakariak.

Gobernuek eta botere ekonomikoek erositako ezkerreko politikari eta sindikalistekin eskarmentu handia dute eta sindikatu indartsu eta independentea nahi dute. ELAren autonomia politiko eta ekonomikoaren zutabe nagusiak beraiekin lantzerakoan oso argi dute antzeko bidetik jo nahi dutela. Trebakuntza saio amaieran argi esan zuen esklabo afrikarren eta Karibeko indigenen nahastetik sortu zen Garifunen komunitateko lider nabarmena den Letik: "Gutariko bakoitzak bere inguruan dituen ekonomia informaleko ekintzaile eta saltzaileak afiliatu beharrean gaude, komunitate bakoitzean sindikatua zabaltzen arituko diren lider berriak aurkitu eta hauek kide berriak egin ditzatela". "Eta norbaitek uste badu hilean 20 Lempirako kuotarekin (0,83€) sindikatu indartsu eta autonomo bat sor dezakegula, jai dugu!", azpimarratu du Idalmik egin dugun saio bakoitzaren amaieran.

Banareroen ondorengoak antolatzen ari dira. Badute beharra, nahia, jakinduria eta antolatzeko gaitasuna. Modu xumean bada ere, elkarbanatu nahi dugun bidea da. Ez da zalantzarik elkar aberasten eta indartzen gaituela. Gora "Banana errepublikak"! Gora banareroen ondorengo borroka! Bada gurea ere. ■

19 de noviembre: manifestaciones contra el empobrecimiento de la clase trabajadora

La Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria celebró el 12 de octubre su asamblea nacional abierta y aprobó una dinámica de movilizaciones bajo el lema “Pobretzeari Stop!”



> Landeia

Los agentes y sindicatos que conforman la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria se reunieron el pasado 12 de octubre en Gasteiz para acordar la planificación de este curso. Entre las principales decisiones adoptadas está la de organizar para el 19 de noviembre, en el marco de la dinámica contra el proceso de empobrecimiento que estamos viviendo, una jornada de movilizaciones centrada en la confluencia de luchas.

La situación se está volviendo insostenible. El Banco Central Europeo

Egoera jasanezina bilakatzen ari da. Inflazioak gora egin eta egiturazkoak diren arazoak azkartzearekin batera langile klasearen pobretze prozesua areagotzen ari da.

ha decidido subir la tasa de interés, las medidas adoptadas por Madrid son cortoplacistas y escasas, y los Gobiernos de Urkullu y Chivite no están utilizando sus competencias para hacer políticas que aseguren las condiciones de vida de las personas.

Nos auguran un otoño duro. La avaricia de las élites y las políticas para garantizar sus intereses suponen un endurecimiento de la situación social.

Conicionados por los Fondos Europeos, el Gobierno español estudia la segunda parte de la reforma de las pensiones. En Euskal Herria, los diferentes gobiernos están perfilando sus presupuestos sin poner en marcha, previamente, una profunda reforma fiscal, que contribuya a que paguen más quienes más tienen, y apoyándose en políticas públicas asistencialistas.

La coyuntura actual no es justa ni sostenible para los y las trabajadoras y la ciudadanía.

Dinámica de movilizaciones

Por ello, las organizaciones que conforman la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria -entre las que se encuentra ELA- ha puesto en marcha una nueva dinámica de movilización.

En el camino de la soberanía y de la transformación social llaman a la sociedad a tomar la calle para exigir políticas que beneficien a la clase trabajadora, aunando fuerzas, tejiendo alianzas y multiplicando su influencia.

Entre octubre y noviembre harán frente al proceso de empobrecimiento que viven de forma específica las jóvenes, mujeres, personas migradas y racializadas y la población en general e impulsarán la activación a favor de una transformación social radical.

¡Es tiempo de garantizar un trabajo y unas vidas dignas e intervenir en el mercado. Este otoño es necesario volver a la lucha para que nadie se quede atrás! ■

Aldarrikapen taula

1 Langileon lana duindu

- Gutxieneko Soldata 1.400 euro eta gutxieneko pentsioa 1.260 euro; bietan gutxienez KPI errearen igoera.
- Emakumeon arrakalarekin bukatu.
- Zaintza lanak aitortu eta banatzeko politikak zehaztu.

2 Energiarako eskubidea eta trantsizio ekologikoa

- Energia-sektorearen publikazioa, kontrol publiko eta soziala.
- Produktu energetiko guztien prezioak kontrolatu eta mugatu.
- Trantsizio energetikoa demokratikoki planifikatzeko bideorria.

3 Zerbitzu publikoen defendatu

- Kalitateko Zaintza Sistema unibertsala eta doakoa garatu.
- Osasun-zerbitzua indartu.
- Hezkuntzari bideratutako inbertsioa handitu.

4 Oinarrizko eskubide eta beharrianak ziurtatu

- Etxegabetzeak debekatu, alokairuen eta hipoteken prezioa mugatu. Turistifikazioa gelditu, desazkunde turistikoaren norabidea hartu. Etxebizitza eskubide subjektibo erreala.
- Elikadura osasuntsua eta bertakoa sustatu. Oinarrizko elikagaien eskuragarritasuna arautu.
- Garraio publiko azpiegitura hobetu, prezioen jaitsiera iraunkorki eta sakondu.
- Bermatutako oinarrizko errentan Kartatik egindako Herri Ekimen Legegilea kontuan hartu.
- Pertsona guztien egoera erregularizatu.

5 Aberastasunaren bidezko banaketa

- Zerga erreforma egin. Enpresen mozkinengatik, aberastasunarengatik eta errenta altuengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handitu.
- Zorrari dagokionez, herritarren zorraren auditoria.
-

6 Bakea eta Burujabetza

- Gerrari ez, irtenbide baketsuaren aldeko elkarrizketa bidea sustatu.
- Demokrazia eta erabakitze eskubidean aurrera egin: Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko urratsak eman.

POBRETZEARI STOP!

¡Condiciones de vida dignas
y control de precios ya!



carta de los
derechos sociales **euskal herriko
eskubide sozialen karta**

URRIAK OCTUBRE

20

Informazio banaketa orokorra
Información en las calles

26

19:00 **GASTEIZ**
Judimendiko auzo elkartea

Energiari buruzko hitzaldia
Charla sobre energía

27

11:00 **BILBO ETA IRUÑA**
Arenal (Tingladoak) Gaztelu plaza

Azoka Gardena
Mercado Transparente

AZAROAK NOVIEMBRE

3

18:00 **DONOSTIA**
Udaletxea

Turistifikazio eta etxebizitzaren arazoak
salatzeko ekimena

Acción contra la turistificación
y la especulación de la vivienda

10

11:00 **BILBO ETA IRUÑA**
Eusko Jaurlaritza Parlamentua

Bazterketa sozialaren aurkako kontzentrazioa
Concentración contra la exclusión social

19

12:00 **GASTEIZ** 17:30 **DONOSTIA, BILBO ETA IRUÑA**
Artium Boulevard Jesusen Bihotza Baluarte

MANIFESTAZIOAK



Esta revista se
elabora con papel
y procedimientos
sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129